

1994ko maiatzak 13

235. zenb.

PRESS

ARRASATE



IGPen emaitza eta Epele

Bide berriak

urratzen



ARRASATEKO BATXILERGO INSTITUTUA

Irakaskuntza publikoa eta euskalduna

GURE ESKOLA



Aurreinskripzio
epea:
Maiatzaren
4tik 18ra



**ZATOK
GURERA!**



IKASKETA ESKAINTZA

- ★ REM Lehen Zikloa
- ★ Batxilergoa
- ★ UBI

**MATRIKULA
DOHAINIK!**

Kloaketako kontuez

Aspaldi usaindu nuen ustela, izan ere sudur luzea edukitzeak baditu bere abantailak, eta ez makalak. Baina tira, aitortu behar dut egungo ustel usaina sudur barik ere berdintsu hartu ahal izango litzatekela. Alegia, gehientsuenok ere asfaltitik eraman behar izan dugula mukizapia behin eta berriro sudurrera. Nonahi, hatsa, kiratsa eta, oro har, usaimenaren periskopioak har ditzakeen usain txarrenak.

Roldan eta Roldanekin etorritako dimisio uholdeak, ustelkeria Hirugarren Munduko herrietako kontua zela pentsatzen zutenei, begiak zertxobait zabaldu dizkie. Beste askorentzat, neu barne, ez du berrikuntza handiegirik ekarri, aurretik ere Estatu Espainiarreko egituren erabateko ustelduraz jabetuta ginen eta. Jabetuta gauden moduan gugandik gertu ere zenbait giro erabat kirastuak daudela. Bai, jaunandreok, ez da Espainiako kontua bakarrik. Ni gelzalea naiz: hots, dutxatzen naizenean usain oneko gela ematea gustoko dudala. Badira beste jeltzale batzuk ere, horrietako batzuren usainaz ari naiz, eta dutxako usaina baino, komunekoa datorkit. Larrosazale askorentzat ere balio du honek, noski.

Ez nabil ezer asmatzen, Max Center, makina txanponjaleak, auskalo zein ur azpitant dabilzan fontaneroak. Osakidetzako

oposizioak, Azpiegitura, Xabier Kalpasoro, Egin, ETBko zentsura...Seguruenik harritu egingo zineten azken hiru kasuok ustelkeriaren zerrenda horretan sartzeagatik...Baina Roldani, Zabalzaren desagerketa eta GALari buruzko argiketak eskatzen bazaizkio, zergatik ez Atutxari Kalpasoro, Juan Calvo edo besteak beste, Egini buruzko jokaeren buruzko argipena?

Ustelkeria ez da bakarrik diru publikoaz baliatzea, ustelkeria aginteak ematen duen estalduraz eta nagusikeriaz norberaren helburuak lortzeko kloaketako tresnak erabiltzea ere bada. Biolentziaren aurkako borrokaren atxakiaz edozer justifikatzen dute zenbait jeltzale eta larrosazalek.

Tira, entzuna dut, bai, jesuita ohia Maquiavelozalea dela. Txikitatik esan ohi didate suaz ibiliz gero gauean pixa egingo nuela ohean. Argi, bada, dabilenari gertatzen zaio eta. Galdetu bestela Roldani, edo Gonzalezi.

Jakin bagenekien ustelkeriaren kontuez baina buru mozketak ikustea, nahiz eta azalekoak izan, gozagarriak dira. Ea bada, mantarena egia den. Baina norbaitek argi esan zuen behin "ez dago frogarik eta egon ere ez da egongo". Mantak, tira egiteko baino estaltzeko balioko du seguruenik.

XABIER LETONA "ATAXI"



Artikulu

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



BAZKARI
ETA AFARI
ONENAK!!!

Tfnoa: 71 46 08

GATZAGAN

Memesa


79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jaurleritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 05 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itxaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Itzar, Eukeni Olabarrieta, Arantza Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingarugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Karmele Perez, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Andoni Urzelai

Izadi

Sendabelarrak, dietetika eta kosmetika naturala.

Sendagile naturistaren kontsulta

Argaltze terapiak




Sebero Altube, 8 79 75 79
Kontzezino, 8 79 03 56

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



ZENBAKI

Aholkularitza

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK



77 08 15



Zain dagigun Monterron

Jarrairi ezetza

Geure 15. urteurrena dela eta, ipuin, bertso eta argazki lehiaketa antolatu ditugu eta horretarako udal-etxeari dirulaguntza eskatu genion.

Non heldu da gure harri-dura, dirulaguntzari ezezkoa eman diotenean eta aitzaki modura Jarrai talde politiko baten adarra dela esan digutenean. Argitu nahi diogu PNV, EA eta EUEri Jarrai gazte erakunde bat dela. Gaur egun Euskal Herriak jasaten duen egoeragatik nahita nahiez bere postura gazte moduan azaltzen duena, eta noski, kultura edozein gazteri bezala axola digu.

Gureganako ezetz honen hausnarketa garbia da. Zuen ezetza gure postura ideologikoei eta jarrera koerenteei da. Gure eskaera zuegan eraman eta "Jarrai" izena ikusi orduko ezetza zenuten ahotan, aurkeztutako lehiaketaren planteamendua eta gazte askori atsegingo ote litzaienkeen kontutan eduki gabe. Honen aurrean ezer gutxi egin dezakegu, zuen jarrera "demokratikoeekin" jarraitzeko esatea besterik ez.

Azkenik esan, lehiaketa-ekin aurrera jarraituko dugula eta dirulaguntzarik jaso ez arren, gazteriaren aldeko borrokan jarraituko dugu, nahiz eta zuen atseginerako ez izan.

ARRASATEKO JARRAI

Orain dela aste batzuk parke eder horretaz bakartasunean gozatzeko aukera izan nuen. Baina, bazen zerbait parkearen edertasuna itsusten zuena: zarama. Hots: tabako paketeak, pipa eta bestelako boltsak, poteak, paperak, kondoioak, e.a. lurtean zein urmaeltxoetan zabalduak. Egun horretan, urte luzez parkearen aurreko jabearen administrari izandakoarekin izan nintzen bertan, eta hark esaten zidan kondeak egun parkea ikusiko balu, lotsa sentituko lukeela. Honek irakurketa desberdinak izan ditzake, badakit, baina bego horretan. Orain, apiril hits honek benetako udaberri aurpegia erakutsi duen goiz batek abagadune ezin hobea eskaini dit parkeaz berriro gozatzeko. Eta ohartu nahiz orduko tabako paketeak, pipa eta bestelako poteak, kondoioak...ez zirela jada lehengo tokietan. Beharrik, norbait aritu da parkea garbitzen. Baina, zorigaitzez, lehengo zarama zabor berriak ordezkatu du: plastikozko ur botilak, metxeroak, tabako paketeak, ...nik dakita zer??!!

Eta zabarrontzi batzuk ipiniko balira? Beharbada nahikoa litzateke. Edo jendeak ez al du hain parkea txukun edukitzeko kontzientziarik? Geurea, denon bada, zain dagigun.

TXIPI

Haziendari ordaindu?

Azken egun hauetan Espainiatik datozkigu berriak lotsagarriak dira. Dirudienez ustelkeria nagusitzen ari da nonahi, eta bereziki kargu gorenen artean.

Horrelako gaisotasunak kutsakorrek direla ematen du, gutxienez agintarien artean; zeren eta Eusko Jaurlaritzako alderdi boteretsuenak ere ustelkeriatan sartuta ikusi ditugu, "tragaperrak" en kasuan, adibidez.

Hala ere gutxi dira oraindik jakitera iristen diren kasuak, eta are gutxiago argitzen direnak. Orain telebistatik zintzotasuna eskatzen dute Errenta Aitorpena egiterakoan. Zelan izan gaitezke zintzoak gure gainerik daudenek zintzo jokatzin ez badute?

Nik langabezian nagoenez, teorikoki ez diot ezer ordaindu behar Haziendari, baina zoritxarrez ez da egia. Garagardo bat edaten dudanean, ordaintzen dudanaren zatirik handiena zergatan joaten dela ikusten dut. Beraz, nik ere ordaintzen dut eta zer ematen didate horren truke? Nahi ez dudana abia-dura handiko trenan, Bilboko museo erraldoia, langabezia eta abar. Guk bete egin behar ditugu Gobernuarekiko ditugun beharrak (Gasteiz, Madril) gaizki bukatu nahi ez badugu behintzat, eta haiek bitartean nahi dutena egiten dute gure diruarekin.

HANKA-AZPITIK

Umeentzako moda



Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

Zer daukazu esateko ustelkeriaren gainean?



**Florentzio Oyanguren
Jubilatua (69 urte)**

Politikariek dirua lapur-
tzea, gaizki iruditzen zait. Gu
eurei begira gaude, beraz,
lapurrean egiten badute, guk
zer egingo dugu?



**Mari Nevado
Etxekoandrea (35 urte)**

Lapurrean egin duten po-
litikariek, egin dutena ordain-
du egin behar dute.



**Victor Hernando
Fagorrek langilea
(48 urte)**

Bizi dugun egoera ezin da
txarragoa izan. Engainatuta
sentitzen naiz. Orain ikusten
dut azken finean politikari
denak berdinak direla.



**Ana Cobos
Ikaslea (23 urte)**

Kanpora begira, ustelke-
ria kasuek nazioaren imagin
txarra eman dute.




**Benigno Zalama
Jubilatua (62 urte)**

Ustelkeriaz bukatzeko,
agintean dauden guztiek kar-
gua utzi beharko lukete. Eta
lehen gainera presidentea
izan beharko litzateke.



**Izaskun Lasagabaster
Ikaslea (24 urte)**

Ustelkeria kasuak daude-
la jakiteak ez nau harritu. Bo-
terea dutenek diru asko edu-
kitzen dute eskuartean, eta
diru hori beti ez da joaten
behar den tokira.



**Jose De la Varga
Jubilatua (66 urte)**

Politikariei konfidatza
ematen badiegu, ba eurak zu-
zenak izan behar dira. Dirua
zuzen banatzeko aukeratu di-
tugu politikariak eta ez dirua
lapurtzeko.




**Mertxe Penas
Etxekoandrea (28 urte)**

Ikusten dudana da, gure
dirua lapurtzen ari direla.
Baina hemen guztiok bizi be-
har dugu, ez batzuk bakarrik.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

**Durana, 12
ARETXABALETA**



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguatoriora 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udalzaingoak
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (liberduero) 12 01 62
 Gasas 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 13
 Eguez 22.00ak arte: Inzar. Erguin.
 Gaez: Estella. Matxiategi.

Larunbata 14
 Eguez 22.00ak arte: Amezua. Santa Marina.
 Eguez: Mozos. Pedro Deunaren.

Igandea 15
 Eguez 22.00ak arte: Ruiz. Magdalena.
 Gaez: Mozos. Pedro Deunaren.

Astolehena 16
 Eguez eta gaez: Morales. San Andres.
 Gaez: Estella. Matxiategi.

Astearte 17
 Eguez eta gaez: Azkoaga. Ferrerías.

Asteazkena 18
 Eguez eta gaez: Español. Iturrioz.
 Gaez: Camacho. Oxirondo

Osteguna 19
 Eguez eta gaez: Corcuera. Musakola.

13 OSTIRALA

ZINEA
 "En el nombre del padre", 7etan
 eta 9.30etan.

EGUN MUNDIALA
 Arrasateko Trikitixa Eskolak
 antolatuta. 11.30etan Zalbi-
 barren elkartu eta Danok Bat
 elkartearen hamarretakoak,
 12.30etan Talde desberdine-
 tan banatuz, herrian zehar
 kalejira, 2etan Garagartzako
 auzo etxean bazkaria eta
 3.30etan jokuak eta musika.

ANTZERKIA
 "Tarde de Sábado", Trapu Zaha-
 rra taldeak antzetzuta. Amaia
 antzokian, gaueko
 10.30etan. Prezioa: 500 Pta
 eta gazte txartelarekin, 300
 Pta.

ANTZERKIA
 Kafe Antzerki III. jardunaldiak,
 Emankor Teatro Taldeare-
 kin. Elorrioko Arriola kultur
 aretoan. Gaueko 22.30etan.

MUSAKOLAKO JAIAK
 Arratsaldeko 7etan, ikurriña igo-
 tzea. 7.15ean Etxanda da-
 goen 77. kilometro-harriaren
 bukaera. 7.30etan auzoko ju-
 bilantuntzat jai afaria Kataide
 jatetxean. 9etan aletadun
 igeriketa. Taldeen arteko
 Euskadiko Liga, Musakolako
 igeriketa taldeak antolatuta.
 11etan dantzaldia goizalde-
 ra arte, Drindots taldeak alai-
 tuta. 12.30etan makrodisko-
 teka ibiltariaren irekiera.

MUSAKOLAKO JAIAK

Giro alaia eta ondo pasatzea nahi baduzu, aukera paregabea daukazu Musakolako jaietan.



14 LARUNBATA

ZINEA
 "En el nombre del padre", 5etan,
 7.30etan eta 10etan.

LUDETEKA IBILTARIA
 Txatxilipurdiren eskutik. San
 Andresko Alkatetzan. Goize-
 ko 10.30etatik ordu bata
 t'erdietara.

DANTZA EMANALDIA
 "Alhambra" talde andaluziarra-
 ren emanaldia. Obraren izen-
 burua: "Bodas de sangre".
 Amaia antzokian, arratsalde-
 ko 7etan.

MUSAKOLAKO JAIAK
 9.30etan 5. mountain bike ze-
 harbidea. 10.30etan pilota
 partiduak. 12etan karete
 erakustaldia kiroldegian.
 2.30etan herri bazkaria Kata-
 ida jatetxean. 4etan Mu-
 sakolako XI. txirindularitza
 saria. 5.30etan San Isidro
 Sokatira txapelketa.
 10.30etan bost minutuz argi
 guztiak itxungitzea, Musako-
 lako independentziaren
 alde. 11etan berbera goizal-
 dera arte Arkaitz taldeak alai-
 tuta. 12etan playback jaial-
 dia auzoko pertsonaje xe-
 lbreenekin. Gizaldekoko ordu-
 bieran gizonezkoen strip-tea-
 se-a, diskotekako platafor-
 man.

15 IGANDEA

ZINEA
 "En el nombre del padre", 5etan,
 7.30etan eta 10etan.

EGUNKARIAREN EGUNA
 Billabonan, "Eman arnasa
 Egunkaria-ri" lemapean,
 Euskaldunon Egunkariaren
 eguna. AED elkarteak anto-
 latu dituen autobusak, goi-
 zeko 9etan irtengo dira Gari-
 bai geltokitik.

KROSSA
 Laixan eta AEDk antolatuta XI.
 Arrasate-Oñati krosa. Itree-
 ra goizeko 11etan Portaloit-
 tik.

HAUR ZINEA
 "Babar en la Selva". Amaia an-
 tzokian, arratsaldeko 5etan.
 Sarrera 200 Pta.

MUSAKOLAKO JAIAK
 11.30etan meza nagusia San
 Isidro kaperan. 12etan gim-
 asia eritmiko erakustaldia.
 Arratsaldeko 6etan herri ki-
 rolak. 7.30etan rock jaialdia
 aire zabaleko kontzertu-
 aretoan. 12etan azken traka,
 suzko erruberak, agurra eta
 amaiera.

OTALAZELAI EGUNA
 9etan, txirindulari irteera kirole-
 txeetik Otala Zelairaino.
 11etan trikitilarien laguntza-
 rekin Otalazelairainoko
 igoera. 11.30etatik 1etara,
 animaliekin jokuak. 1ean
 bertsolariak. Arratsaldean,
 4.30etatik 6etara haurren-
 tzako jokuak, Ortzadar tal-
 deak antolatuta, 6etan Dan-
 tzaldia, Loramendi dantza
 taldearen eskutik. 10.30eta-
 tik 12etara, Aldaba taldeare-
 kin dantzaldia Durana Ka-
 lean.

IKARUS TALDEA
 Ikarus ala delta eta parapent tal-
 dearen kontzentrazioa, egun
 osoan zehar, eguraldiak la-
 gutzen badu. Jauzia Kur-
 tzebarritik Urkulura izango
 da.

16 ASTELEHENA**ZINEA**


"En el nombre del padre", 7etan eta 9.30etan.

17 ASTEARTEA**ZINEA**

"En el nombre del padre", 7etan eta 9.30etan.

APOSTASIA

Apostasiaren alde dauden guztientzat bilera egingo da. Jai-Zale tabernan 8etan.

**IKARUS TALDEA**

Ikarus, ala delta eta parapente taldearen kontzentrazioa. Eguraldiak laguntzen badu egun osoan zehar. Jauziak Kurzebarritik Urkulura izango dira.

BIZIKLETA FESTA

Aurtengo Bizikleta Festa, ekainaren 11n izango da Donostiako Belodromoan. Bertan, Europa mailako txirrindulari onetsuenek hartuko dute parte, kirola, ikuskizuna eta sariak nagusi izango dira.

JUBILATUEN EGUNA

Maiatzaren 21ean jubilatuen eguna ospatuko da. Egitaraua: jaia adierazteko kalejira Arrasateko Dultzaineroak alaituta. 12.30etan herri meza San Juan eleizan. 2etan lagunarteko bazkaria Polikiroldegian. 4etan jubilatuentzat dantzaldia eta sari banaketa.

HELDUEN HEZIKETA

Arrasateko helduen heziketa ikastetxeak, 94-95 ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du, maiatzaren 30a arte. Matrikula ikastetxe bertan egin daiteke (Ferrerias kalea 28-B) edo 771172 zenbakira deituz.

**ERAKUSKETA**

Gizakia Helburuk antolatuta, pintura erakusketa. Maiatzaren 10etik, 30era. Monterronen. Orduetgia, egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

18 ASTEAZKENA**HITZALDIAK**

"Elorrixa: hamar urte ekologian". Hizlaria: Julen Rekondo. Elorrioko Arriola aretoan, 7.30etan.

MAHAINGURUA

Gaia: "IGPetako emaitzaren azterketa". Hizlariak: Gipuzkoako Foru Aldunditik, Roman Sodupe; HBtik, Xabier Zubizarreta; EUE-EAtik, Aitor Orobengoa; Gizarteaz enpresatik, Luxio Ugarte; IGPetako parte hartzailea, Aitor Iturriaga; Gatzaga-Landa komiteko ordezkari bat; moderatzailea, Jose Ramon Elortza. Arrasaldeko 7etan Monterronen. AEDk antolatuta.

REALA ATXABALPEN

Reala atxabalpera etorriko da, goizean. Entrenamendua egingo du Atxabalpen.

PINTURA ERAKUSKETA

Maiatzaren 6tik 22ra, Kepa Altube, "Kopiren", pintura erakusketa. Harresi aretoan. Orduetgia, egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

ONGI ETORRIA

Maiatzaren 21an Iñaki Iturri ongi etorria egingo zaio Atxabaltan. Arrasaldeko 7etan kontzentrazioa Gatzagan, ondoren kotxe karabana Aretxabaletaraino. 7.30etan ongi etorria Mitarte enparantzan eta ondoren, ekintza politikoa, trikitixa eta bertsolariak. 9etan Herri Afaria. Txartelak Urbaltz eta Arlutz tabernetan salgai.

19 OSTEGUNA**ZINEA**

"Los amigos de Peter". Gaueko 9.30etan, Amaia antzokian. Sarrera: 300 Pta, gazte txartelaz 250 Pta.

AEKANPADA

Maiatzaren 20, 21 eta 22an, Dimako aireportu zaharrean. Akanparadako eta autobusetarako txartelak salgai Hiren eta AEKn.

AURKEZPENA

Euskaria, Euskal-Herriaren subiranotasunaren alde lan egiten duen elkartearen aurkezpena, maiatzaren 20an. Udaletxeko pleno aretoan.

ELKARRIREN JAIALDIA

Maiatzaren 20an, jaialdia izango dugu Atxabaltako kiroletxean, Elkarrik antolatuta. Bertan, Jon Sarasua, Andoni Egaña, Xabier Amuriza eta Mendizabal bertsolariak hartuko dute parte. Jotariak; Carcastilloko jotoeroak eta Eramun Martikorena abeslaria. Saioa gaueko 10.30etan hasiko da. Sarrerak aurrez, 800 Pta balio ditu eta honako toki hauetan lortu ahal izango da: Atxabaltako Arlutz tabernan eta Arrasateko Hire liburudendan. Takilan 900

“Ikastoletako hainbat ikasle, guraso, irakasle eta hurbileko hainbat laguntzaile aritu ohi dira Herri Urrats egunean bertan, lehenago eta ondoren. Esker berezia horieri baita Hegoaldetik beren laguntza ematen diguten Basauriko Sustrai taldeko, Ordiziako erroskila saltzaileei, Zugarramurdi eta Arrasateko taldeei”.

Gillermo Etxebarriak

Egunkaria

“Lanbide eskola eta lan munduaren arteko elkarlan estua beharrezkoa da ikasketa planak, ikasi beharreko teknologiak eta eskaini beharreko formakuntza eta ezagupenak erabakitzeko orduan. (...) Gaur egungo beharrak, eta askoz gehiago etorkizunean, oso garrantzitsuak dira gaur egungo langile munduan. Ondorioz, enpresek oso mugatuta eta mehatxatuta ikusten dute euren etorkizuna, garapen hori aurrera eramateko gai diren pertsonarik ez dute eta”.

Iñaki Otañok

EL DIARIO VASCO

“Goztiaz ahotan dabiltzan aprobe-txategi hauena ere komikoa litzateke, aktoreek ez balute gure poltsikoetatik kobratuko, eta ikus-entzule askoren-tzat eguneroko bizi beharra ez balitz hain tristea izango. Botereak —fama duen bezala— usteldu dituen banaka batzuegan balego arazoa, gaitz erdi! Baina hemen gero eta jende gehiagok sumatzen du alderdi politikoen (ez PSOErena bakarrik) eraketa, funtzionamendua eta finantzaketa dela arazo nagusia eta beste askoren sorburua. Horregatik ez dagoela kontrol-borondaterik, ez gardentasunik, eta bai elkar estali beharra. (...)”

Noiz asmatuko ote da politika egiteko era berri bat? Eta Utopiaren kontrako indar zaharrak’ kontra baleude, agian osasungarria litzateke boto- eta zerga-intsumisioa gizartean zabaltzea. Baina honetarako heziketa eta heldutasun dexente beharko, dudarik gabe!

Iñaki Mendigurenek

Egunkaria

Uharkapen pilotalekua egiteko proiektua atzeratu egin da. Zelan baloratzen duzue erabakia?

Balorazioa egiteko, erabaki hori hartzera eragin duten arrazoiak zeintzuk diren jaso behar da baina oraingo, azalpenik jaso ez dugunez, ez dugu ulertzen zergatik hartu den erabaki hori. Uharkapen, ez pilotalekua bakarrik, baizik eta beste hainbat kirol egiteko balioko duen polikiroldegia egitearen alde gaudenoi, azalpen bat behintzat merezi dugula iruditzen zaigu.


Joan zen ostiraleko plenoan, oraingo behintzat, kiroldegia egiteko asmoa atzeratzea erabaki zen. Baina horrek zehazki zer esan nahi du, datorren hilabetean edo agian hemendik lau urtetara egingo dela? Uharkapen kiroldegia egitea aspaldi onartu zen eta eraikuntza egiten ere hasi ziren, beraz, zergatik orain erabaki hori? Arazoa zein den behar bezala argitzea eskatzen dugu.

Bestalde, argi utzi nahi nuke eskaera hori ez dugula pilotazaleok bakarrik egiten. Polikiroldegia eraikitzearen alde, pilotazaleok, gimnasia erritmika taldekoak, halterofiliakoak eta beste batzuk daude. Gainera, toki hori erdiguneko ikastetxeek eta jubilatuek ere erabili ahal izango dute. Musakolan eta Iturripe aldean badute kiroldegia, baina erdi aldean ez dago horrelakorik. Uharkapen kiroldegia eginda, zerbitzugune interesgarria eratuko litzateke, alde batetan Monterron geratzen baita eta bestean Amaia antzokia.

Lehen esan bezala, azken gertakizunek aho zabalik utzi gaituzenez, erabaki hori zergatik hartu den argitzea eskatzen dugu, baina hala ere, guk ez dugu amore emateko asmorik. Beraz, polikiroldegia-aren alde lanean jarraituko dugu.



Kepa Lizarralde
Uharkapen pilotalekua egitearen aldeko pasrtaideia



Gipuzkoako Espezialitate Odontologikoetarako Zentrua, E.M.

Centro de Especialidades Odontológicas de Guipuzcoa, S.L.

Espezialitate guztiak

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia Finkoak
- Protesiak
- Endodontzia
- Umeak, gauzaeztanduak, etab...

Zure hortz-osasuna zaintzen laguntzen dizugu.

BERGARAKO KLINIKA

Simón Arrieta, 3-2 B
Tf. (943) 76 38 54

ARRASATEKO KLINIKA

Iturriotz, 7 behea
Tf. (943) 79 73 88

ZUMARRAGAKO KLINIKA

Soraluze, 1-1 ezk.
Tf. (943) 72 46 47

Fagorreko batzar orokorrak

Joan zen astean, Fagor taldeak hainbat batzar burutu zituen. Ostegunean, Iturripeko frontoian Fagor Elektronikak egin zuen batzarra eta ostiralean, Fagor Automation, Elektronika eta Sistemasek. Batzarretan azaldu zenaren arabera, orokorrean iazko urtea gogorra eta kritikoa izan zen. Hala ere, 94a hobeto doala adierazi zuten. Aurten, esportazioak eta ahal izanez gero lanpostuak gehitzen ahaleginduko dira Fagor Taldeko enpresak. Gainera, proiektu berrietan sartzeko asmoa ere badutela azaldu zuten.



Mendi Astea bukatu

Astebukaerako txangoekin, Besaide Mendizale Elkarteak bukaera eman zion Mendi Asteari. Aurreko egunetan ere, mendiaz loturiko ekintza desberdinak izan ziren, besteak beste diapositiba emanaldiak eta mahainguruak. Ostiralean zehazki, Felix Iñurrategi izan zen Arrasaten eta bere eskutik, Amaia antzokira hurbildutako guztiek K2ri buruzko audiobisuala ikusi zuten. Larunbatean, berriz, mendi bizikletaz ibilaldia egin zuten zenbait lagunek eta domekan azkenik, Leintz bailarako 7. Mendi Itzulia. Mendiari buruz ari garelarik, gogoratu, Iñurrategi anaiek eta beste bi lagunek osoturiko espedizioa dagoeneko K2rako bidean dela. Felix eta Kike De Pablo, domekan abiatu ziren eta Alberto eta Juan Oiarzabal, asteazkenean. Eguraldiak laguntzen badie, ekainaren lehen hamabostaldirako tontorra lortzeko asmoa dute. Zorte on!

Emakumea garrasika

Ostiralean, norbaitek ertzaindegira deitu zuen, emakume bat bere etxe barruan garrasika zegoela esanez. Ertzainen patruila bat esandako tokira joan zen eta emakume bat etxe barruan ohikua zegoela entzun zuten. Ertzainak lehiotik sartu ziren eta hankak mugitu ezin zituelako lurrean etzanda zegoen emakumea aurkitu zuten. Ondoren, Gurutze Gorriko

anbulantzia etorri zen eta emakumea Eskualdeko Ospitalera eraman zuten.

Epaiketa

Asteartean, Iban Vega

intsumiso arrasatearra epaitu zuten Donostian. Epaiketan Ibanek ez zuten tribunala errekonozitu. Intsumisoekiko elkartasuna adierazteko, Arrasateko talde antimilitaristak deituta

manifestazioa egin zen astelehenean. Manifestazioan, jende asko batu zen, 300 lagun inguru.

Istripua

Joan zen ostegunean, auto batek emakume bat harrapatu zuen, Meca gasolinera inguruan, eguerdiko 3ak aldera. E. P. arrasatearra, Gurutze Gorriko ambulantzi batek Eskualdeko Ospitalera eramane zuten, larriki zauritua.

JAIOTZAK
<ul style="list-style-type: none"> • Joseba Church Iturbe. Apirilaren 29an. • Ilargi Uribe Ugalde. Maiatzaren 2an. • Jokin Arana Fernandez. 4ean. • Eneko Estrella Naranja. 4ean.
EZKONTZAK
<ul style="list-style-type: none"> • Luis Homero Bermudez Alvarez & Susana Mangana Porteiro. Apirilaren 30an. Elizaz. • Jose M^a Garro Urzelai & Cristina Letamendi Azula. Maiatzaren 7an. Elizaz. • Angel 'Herrero Rodriguez & M^a Teresa Cubero Maroto. 7an. Elizaz.
HILDAKOAK
<ul style="list-style-type: none"> • M^a Carmen Larrañaga Maiztegi. Maiatzaren 5ean. 59 urte. • Paula Sierra Montesinos. 6an. 77 urte. • Ramon Maza Soneira. 9an. 86 urte.



**MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
(ELEMENTALA) BERGARA**

Aurreinskripzioa: Maiatzaren 4tik 18ra
Argibideak: Ibargarai, 1
Tfnoak: 76 24 91 - 76 38 40
Ordutegia: Goizeko 9etatik 13ak arte

HEZKUNTZ ESKAINTZA

REM (Batxilergo Orokorra)

GOI MAILAKO BATXILERGOAK


- * BTI (Batxilergo Tekniko Industriala)
- * BAG (Batxilergo Administratiboa)

LHII (LANBIDE HEZIKETA II)

- * ADMINISTRATIBOA
- * ELEKTRIKO-ELEKTRONIKOA
- * MEKANIKA

MODULO PROFESIONALAK III

- * MEKANIKAGINTZA
- * ENTREPRESEN ADMINISTRAZIOA



JUAN JOSE GOENAGA *

Haurren Lehen Jaunartzea dela eta

Maiatzak betiko gaia dakar: Lehen Jaunatzeak. Periodikoe-tan eta familietan, eta amen tertulietan urtegarai honetako gai berezia horixe izan ohi da.

Azkenaldi honetan ugari-tzen ari da gai honen tratamen-dua periodikoetan. Bada gure artean eguneroko bat azken aste osoan gai hau darabilkiena "Ez-baika"ko orrialdean. Zenbaitek gauza bitxi eta erdi folkloriko-tzat hartzen du, zenbaitek erlijioso-etnografirako kapitulo bat bezala. Beste batzuk, serio samar hartzen dutenak, haur-tzaroan izan zuten trauma-egun bezala oroitzen dute; eta beste batzuk bizitza osoan izan duten egunik ederrena bezala.

Ez dira falta "kontsumismoarekin" lotura estrategikoa duen eguna eta festa direla esaten dutenak. Astero elurretara joatea ez dela kontsumismoa esaten dutenak beraixek izango dira, agian. Eta azkenik bada haurra sano, konplejurik gabe eta traumarik gabe hezitzeko baldintza bezala jarten dutenak Jaunartzea ez egitea, edota alderantziz, haurraren lagun gehienek Jaunartzea egiten dutenez gero, traumarik gabe

hezitzeko egitea dela onena esaten dutenak, nahiz eta jokaera hori beren printzipioen aurka joan. Hau da nahaspila!

Eta gauza xingleagoa baltitz? Burua argi eta leialtasunez jokatzuz gero, gauza simple samarra dela derizkiot.

- Fededun izatea, kristau izatea, ez da egun batetik bestera iristen. Fedeak eta kristau izateak prozesu bat eskatzen du. Haurraren fedea eta pertsona helduarena ez dira berdinak, oso diferentek baizik. Fedea hezi egin behar da.

- Heziketa denez, etxean hasi behar da. Gauza inportanteak ez dizkiogu kanpokoari uzten: gure ezinean lagunduko digute.

Fede heziketa hau mila erata egin daiteke. Gurasoek dute hor eginkizun bereziena. Gura-

.....

Gurasoei eskatzen zaiena koherentzia da

soak kristauak ez badira, ez dute heziko kristau fedean, normala denez eta eskubide osoarekin.

- Elizak baditu une inportante batzuk kristaua izan nahi duenarentzat; Bataioa, Sendotza eta Eukaristian parte hartzea.

Hori horrela izanik, Elizak ez du hau besterik egiten: Nahi duten gurasoek presentatzen dituzte seme-alabak bataiatzera. Nahi duten gurasoek presentatzen dituzte Fede Heziketa egitera Katekesian eta Eukaristian parte hartzera. Gurasoei eskatzen zaiena koherentzia da. Normala da beren burua kristautzat ez dutenek seme-alabak ez presentatzea. Eta honekin ez du inork harritu behar, ez amonak, ez familiak.

Beste gauza bat da guraso bakoitzak eta haur bakoitzak hau dena nola bizitzen duen. Zer nolako fantasmak sortzen zaizkion, zer nolako oroitzapenak, zer nolako eboluzioan dagoen e.a. Gauza inportanteak batzuk normaltasunez bizi izaten dituzte, beste batzuk traumarekin eta beste zenbaitek akonplejaturik: beste errealitateak bezalatsu: sexualitatea, dirua, heriotza, giza-bizitza bera e.a.

Bukatzeko: Noiz iritsiko ote gara jabetzera demokrazian bizi izateak eta demokrazia izateak ez duela esan nahi gure pentsamoldeetan denok berdina garenik, alderantziz baizik, diferentziatik sortzen den giza bizitza dela benetan demokratikoa.

Noiz konturatuko ote gara fededun eta kristau izatea gurasoen eskuetan hezitzen dela, eta fededun ez diren gurasoek eskubide osoa dutela euren seme-alabak federik gabe hezitzeko. Biei koherentzia eskatzen zaie, eta ez elkar kritikatzeko ibiltzea.

* SAN ANDRESKO PARROKOA

USTEAK USTE

GAZTELUA

Santa Barbaran gazteluaren zantzuak agertu zaizkigunetik ugariak izan dira horren sorreraz, izenaz eta zentzuaz kaleratu, argitaratu diren iritziak: Nafarroako erresumaren gotorleku izan zela, "Arrasateko fundazioaren (sic) osteko eraikuntza, lapurren bizileku...

Gazteluondoko ikastola urte dexente eman dugunok bagenekien, Garibairen testuak ezagutu barik eta arkeologoen lan astuna aztertu barik, bagenekien Santa Barbaran gaztelua zegoena, izan ere irudimenari esker, leku jakin batzuri izena jarrita genien eta gorte txiki batetako eszenak ekartzen genituen geure jolasetara. Eskeletoaren kobazuloan edota erreginaren balkoian irudikatzen genuen gure gaztelua.

Behetik gora joan da Parkea txukuntzen eta goranzko bidean, Goikobalun, topatu du oztoporik zaharrena obrak. Kontua orain, indusketa-aren ustiapenik egokiena egitea da eta gaztelu harriak herriari erakustea, eskolaumeen irudimenari euskarria eskaini, heldu eta nagusiei zalantza argitu eta kanpotarrei ere harrotasunez informatzeko.

JON GARAI

**EDERRA
TABERNA**

Iturriotz, 12 ARRASATE
Tfnoa: 79 96 25

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

Ferixalekuko frontoiaren atzerapena, plenuko erabakien artean



Kirolzaleek eta Aldaiko panteoi-jabeek bete egin zuten pleno aretoa.

Udal aurrekontuak erabakirik geratu ziren joan den ostiraleko udal plenoan, PSOEk hauteskunde aurreko kanpainatzat jo eta aurkako botua eman bazuen ere. Aurkeztutako enmedakinen artean batzuk onartu egin ziren. Horien artean, Uherkapeko pilotalekuaren proiektua atzeratzea erabaki zen EAJ, PSOE eta EUEren botuekin eta eztabaida luzearen ondoren. Horma egiten den bitartean frontoiaren proiektua aztertu eta gaztelekuaren araudia lantzea proposatzen zuten PNVk. Obraren adju-

dikazioa egina dagoenez, TECSA enpresa eraikitzaileak eska dezakeen indemnizazioak arazoa ekar dezake, EAK eta HBK adierazi zuten; enmendakinak aurrera irtenez gero errekurtsioa jartzeko asmoa ere adierazi zuten Herri Batasunak, eta oraindik aurkeztu ez duten arren, hila-beteko epea dago.

Atzerakizunak haserrean piztu du herriko pilotazale eta kirol taldeen artean; urtetan landutako proiektua bertan behera uztearen kontra ekintzak burutzeko asmoa adierazi dute.

UDALZAINGOAREN AUZIA

Bestalakoan, Udaltzaingoaren presentzia handitzeko kontratazio berriak egiterik ez zen onartu; zerbitzu hori Ertzantzak osatzearen aldeko eta kontrakoen auzia dago tartean; Arrasateko Udalak, izan ere, bazuen erakunde horrekin hitzarmen bat, baina une honetan ez da betetzen.

Aurrera irten zuen, bestalde, lanpostu bi (administrari laguntzailearena eta gidariarena) finko egiteko asmoak.

Hirigintzako gaietan, he-

rriko plazan kioskoa egitea ere proposatzen zuten PNVk, baina asmo horrekin ez ziren bat etorri gainerako alderdiak. Garagartzan, bestalde, Ingu-rugiro Zona Integratua egingo da, autoen garbiketa eta olio aldaketa norberak egiteko lekua, Mugarritten oinezkoentzako bidea egiteko izendatutako diruarekin egin ere.

Kultura eta euskarari dagozkion gaietan, Egunkariaren akziorik ez da erosiko EAJaren enmendakina onartu zenez; Udal Irratiaren proiektuak aurrera egingo du, aitzitik, eta aste honetako gobernu batzordean bertan erabaki da tresneriaren adjudikazioa. Herriko jai nagusietarako izendatutako partida bere hartan geratuko da, 20 milioitan, alegia, azken urteetan igoerarik izan ez delako.

HBK parrokia berritzeko dirulaguntzaren kontra jarritako enmendakinak ez zuten aurrera egin, eta ezta EuEk Eskola Politeknikoari 21 milioiko laguntza gehigarria ematea eskatuz aurkeztu zutenak ere; azken horretarako borondate ona aurrekontuen memorian jasorik geratu da, hala ere.

Pleno berean, atzera bota zen Aldaiko kanposantuko panteoi jabeek kanposantu zaharrean lurperatzen jarraitu ahal izateko jarrita errekurtsioa, aurretik erabaki zen posturarekin jarraituz. Gauzak horrela, afektutako familiek Euskal Herriko Epaitegi go-renera eramango dute kasua.

FANCY

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

IBARRA Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



Compasa enpresa eta garbiketa zerbitzuko langileak akordio batetara heldu dira.

Konpondu da Santa Agedako garbiketa zerbitzuko arazoa

San Juan ospitala garbitzeaz arduratzen diren hogeitahiru langileak akordioa lortu zuten asteazkenean Compasa enpresa donostiarrekin. Nahiz eta hasiera batean eskatzen zuten guztia ez lortu, langileek lortu dute enpresak hainbat puntu aldatzea, eta bertanbera utzi dute greba. San Juan ospitala garbitzen duten langileak, antzinasuna dela eta jasotzen den dirua enpresak bost urteren buruan eman nahi zielako hasi ziren greba egiten. Asteazkenean hartutako akordioaren arabera, aurrerantzean bost urteren buruan jasoko dute aintzinasuna, baina IPCa igoko zaie, beraz, aurtengo soldatan 4,9ko igoera

izango dute soldatan.

Gainera, orain arte langile hauen erdiak behin behineko kontratua zuen eta akordioaren arabera, aurrerantzean kontratu horiek finkoak izango dira. Bestalde, oporrei dagokien beste puntu bat ere konpondu zuten. Orain arte, enpresak esaten zuen oporrak noiz hartu behar zituzten eta orain, berriz, langileek ere erabaki ahal izango dute oporrak noiz hartu. Lortutako azken puntua, konbenioari buruzkoa da. Erreforma laboralean aldaketak egon daitezkeen arren, langile horiek orain duten konbenioaz jarraituko dute 96 arte.

Borondatezko suhiltzaileak

Deba Garaiko Mankomunitateak aukeraturiko 28 lagunak hasi dira borondatezko suhiltzaile izateko prestatzen. Ikastaroa emateaz Foru Aldundiko suhiltzaile zerbitzukoak arduratzen dira. Prestakuntzak sei aste iraungo ditu eta egunero, hiru ordutako klasea izaten da Zubillagako parkean. Arrasatetik zehazki, 11 lagun aukeratu dituzte.

Irrati tresneria erostea onartu

Asteleheneko Gobernu Batzordean, udal irratia martxan jartzeko behar den tresneria erostea onartu zen. Bestalde, Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena ere sinatu zen. Horren arabera, udaletxeak bazkide modura, urtero 250.000 PTako kuota ordainduko du eta trukean Eusko Ikaskuntzak, 220 liburuz osoturiko argitalpen bilduma eta urtero publikatzen dituen liburuak dohainik emango dizkio udalari. Gainera, urtean behin erakusketa ibiltaria Arrasatera ekarriko du Eusko Ikaskuntzak



URONDO elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Zabalik dago Epele-Kanpazar errepidea

Astelehenean, Epele-Kanpazar bitarteko errepidea inauguratu zen eta era horretan, errepidea erabiltzen hasi dira autoak. Inaugurazio ekitaldian, Eli Galdos Gipuzkoako Diputazioako Aldun Nagusia, Roman Sudupe Gipuzkoako lan publiko eta azpiegitura diputatua eta Xabier Zubizarretak, Arrasateko alkateak hartu zuten parte besteak beste.

Errepide berriak 5 Km eta 3 karril ditu, bat behearantz joango diren autoentzat eta beste biak gorantz joango direnentzat. Bidea egiten 92ko abenduan hasi ziren eta hasiera batean urte hasierarako gertu egongo zela uste bazen ere, ia bost hilabetetako atzerapenaz zabaldu da; eguraldi txarrak eta lurjausiek eragin dute batez ere atzerapena. Horretaz gain, uste baino 700

milioi gutxiago kostatu da, 1500 milioi inguru hain zuzen ere.

Errepide horren bidez, Durango aldea eta Deba Garaia lotuta geratuko dira. Au-

rerrerantzean, Elorriotik datozen edo Durango aldera joan behar dute kamioiak ez dira Arrasatek pasatu beharko, beraz, herrian ibilgailu gutxia-

go pasatuko da aurrerantzean. Azkenik, egunero errepidea 6.000 7.000 ibilgailu inguruk erabiliko dutela espero dela esan behar.



Mariezkurrena enpresa nafarreko langileek egin dute errepidea.

LORAMENDI KIROLAK



PATINAK

AUKERAN

ADI







ARRISKUZALE!





Nerea Alaba eta **Maialen Aranegi** dira aurtien, Txatxilipurdi Elkarteak Udalaren laguntzaz antolatu dituen "Udaleku Berdeetan" parte hartzeko izena eman duten lehenen-

go bi neskak. Lehenengo astea Arrasaten pasatuko dute eta bigarren astea, berriz, Udako ingurugiro eskolan. Oraindik izena eman ez baduzu, zeri begira zaude?

San Juanetarako egun asko falta den arren, hasi dira tanborrada prestatzen. Beraz, tanborren zarata hotsak protagonismoa hartuko du kalistroetan. Txikitxoek eta hain txikiak ez direnek nahikoa lan izango dute ikasten, eta erakusten ari direnek ere, pazientziaz hartu beharko dute.



Ingrid Schraner

suizarra, Otorako zentrura etorri da Kooperatiben garapenari buruz ikerketa bat egitera. Ingrid irakasle lanetan Vietnamen egon zen. Orain berriz, Australian bizi da. Baina

Otoran beste bisita bat ere izan dugu. Canadatik kooperatiben munduarekin erlazioa duten 10 pertsona etorri dira, inguruko kooperatiben nondik norakoak ezagutu eta ikertzeko asmoz.



lurrindegia **perfumeria**
ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulua
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

"PAL"

**burdindegia,
 brikolage
 eta tresneria**

Urbarri etorbidea 3,
 Tfnoa: 79 31 99

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
 eta ostiral
 5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99



Azken aldi honetan kanpai hotsak entzuten ari gara, sarri sarri. Horren arrazoia, San Frantzisko elizan Santanderretik ekarritako 3 kanpai berri jarri

izana da. Kanpai handienak, Arantzazuko Ama du izena, San Antonio txikiak eta erdikoak ostera, San Frantzisko. Kanpai hauentzat melodia Juanito

Arzamendik konposatu du eta hiru nota besterik ez ditu erabili melodia egiteko: Mi bemola, Do eta Si bemola. Juanitok gau batean konposatu zuen aurre-rantzean kanpaiek joko duten kantua: Angelusa, eguerdiko 12etan eta ilunkaran egunero entzungo dena eta Requiema. Azken hori hiletetan entzungo da bakarrik. Baina gainera orduero, kanpai hauetatik soinu motz bat ere entzungo da. Kanpiaiak alemaniatik ekarritako ordenadorea batek joko ditu.



Zigor Urainek, 18 urteko arrasatearrak, Lazkaoko lasterketa eta mendiko proba irabazi ditu. Zigor, Caldederias

San Pedro taldeko txirrindularia da eta irabazi duen lora sorta Dorletako Amari eskeini behar dio. Detaile polita!

Corazón de Encina, Extremadurako taldeak, asteburu honetan taldeko erregina eta damak aukeratzeko festa berezia egin zuen. Eta asko

eztabaidatu ondoren, epaimahaikideek, **Desiré Chinarro** hautatu zuten erregina eta **Marisa Del Pozo** eta **Vito Algaba** ohorezko dama. Zorionak!



ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

**Mendi
taberna**

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

S. F. X. IKASTOLAN R.E.M.



Eta zuk ze inbiozo datorren urtien?



Nik, oso garbi daukat: San Frantzisko Xabier Ikastolara fango naz REM ikasten. Gainera, Ferixalekuen, eskola berri-berrixen prepartetan dabit, tailer, mediateka, jangela eta guzti.

ETAPA BARRIXE



Jo, baina ni euskeran ez nabil oso ondo...



Trankil, denondako dauz aukerak!

FERIXALEKUKO IKASTETXE BARRIXEN



Eta zu zela enteratu zara honeaz?



Niri S. F. X. Ikastolako irakasleek esplikatu dustie; fan eta eurekin berba egin, mutil!



IZENEMATE EPEA:
Maiatzaren 4tik 18ra
4etatik 6etara
Tfnoak: 79 41 22 - 79 26 40
ETORRI
GAZTELUONDORA!!

SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA

Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Unai

Zaldibar azkenetan eta Uribe Auzoa aurrera

Bi txapelketa jokoan eta makina bat gauza komentatzeko moduan. Hasi, beraz, Zaldibarrekin hasiko gara. Final Fourko azken aurreko neurketa jokatu denean, Argi Ibilik eta Trikitik finalerdietako txartela poltsikoan dute, dagoeneko. Iratik eta Fosforosek, hurrengo erronkari itxaron beharko diote, nahiko argia dirudiena behingoz ziurtatzeko. Gauzak honela, datorren asteburuan jokatu den jardunaldia emozioz eta sorpresaz beteta egon daiteke. Iratik Zuloaken kontra neurtuko ditu indarrak, ber-

dinketa nagusituko balitz, Iratik egingo luke aurrera. Zuloakek irabazi ezker, bera sailkatuko litzateke eta begi guztiak Fosforosen partiduan ipini beharko genituzke. Bestalde, Argi Ibili eta Trikiti aurrez aurre izango ditugu eta 1. eta 2. postuak jokoan. Uribe Auzoako txapelketari dagokionez, 8. jardunaldian, gero eta garbiago ikusten dira gauzak, baina oraindik neurketa batzuk falta direnez, azken uneko sorpresak ere izan ditzakegu. Beraz, hanka sartu baino lehen, isilik egotea hobeto.

.....
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA
.....

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Zaldibarko Txapelketa

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	2	2	0	0	11	2	4
TRIKITI	2	2	0	0	9	4	4
MIKELOS	2	0	0	2	4	8	0
PEPELUS	2	0	0	2	2	12	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	2	1	1	0	7	5	3
FOSFOROS	2	1	1	0	6	5	3
ZULOAK	2	1	0	1	4	4	2
ARLUTZ	2	0	0	2	3	6	0



Asteburu honetan lau neurketa izango ditugu Zaldibarren: Irati-Zuloak, Arlutz-Fosforos, zapatuan izango dira 11etan eta 12etan. Domekan Pepelus-Mikelos, Argi Ibilu-Trikiti. Uribe Auzoan beste lau neurketa gomendatzen dizkizuegu: Lautherbrunnen-Semen U'P, Ganbelas-Ke Oxtias, Korinto-Los Garimbas eta Los Dalton-Beti gazte.

Uribe auzoa Txapelketa

A taldea	
Lo+ X	11
Ola Tailerrak	11
Borrock'n roll	11
Corinto taberna	10
Semen'up	9
Altza porru	8
Kabiru	7
Elisabeth	5
Lore Gazteak	4
Trotabares	4
No comment	0

B taldea	
Nuevo taberna	12
Bodisca	11
Ganbelas	9
Solano 7 mares	8
Yomai	8
Berango sukak.	8
Ke Oxtias!	7
Sorgol	7
Lokis	4
Bayer de Lenitz	4
Atxanta que te ...	2

D taldea	
Stocker's	13
Equus	12
Hirei	10
Belo eta Txapi	10
Lauthenbrunnen	9
Top Hits	7
Estrella floja	6
Mob. Arenaza	5
Ezkinako hontzak	4
Los insociables	3
Etxe Mob.	1

E taldea	
Los Dimy	14
Txeyenex	11
Beti gazte	10
Jo ta Akabau	9
Excav. Lete	8
Fancy bois	8
Kirten tropel	7
Los Dalton	7
Auf dem Koffer	4
Los garinbas	2
Borrock'n prom.	0

ARTEA

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**

Erakusketa berria:
Kanpatorrea, 2
(Parroikia ondoan)
ETORRI IKUSTERA!

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

ASOCIACION / ELKARTEA
LIZARRA

Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
Goizeko 9etatik 1a arte
TFNOA: 79 19 21

M

MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekarria
Arrisku gerentea

Boulevard, 11 5^a-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

S.Z.O. F-95 erregistro Zka.
Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

BELARRIRA

◆ **Ezbeharra.** Angel Mari Etxabe, Zuloak taldekoa, protagonista bihurtu zaigu asteburu honetan. Baina tamalez ez albiste on batengatik, lesionatu egin delako baizik. Eskuan golpe gogorra hartu zuen zapatuan Fosforosen kontrako neurketan. Orain eskua bendatuta du eta laster osatu eta berriz jokatzeko gertu egotea espero dugu.

◆ **Ordutegia.** Uribe Auzoko txapelketan ordutegiari dagokionez, zenbait aldaketa izan zituela aipatu genuen azken zenbakian. Orain, berriz, ordutegi normalean jokatuko direla esan beharrean aurkitzen gara: normaltasuna, beraz, nagusi.

◆ **Golak.** Uribe Auzoan, 139 gol sartu dira eta Zaldibarren jokatu diren lau neurketetan 28 gol. Gainera txapelketa honetan goleadak izan dira nagusi, emaitza benetan aipagarriak. Bestalde Uribe Auzoan, 4 taldek atsedena hartuko dute, Trotabares, Bodisca, Equus eta Los Dimyek.

EMAITZAK ZALDIBAR

A TALDEA

Pepelus 1 - Argi ibili 8
Mikelos 3 - Trikiti 5

B TALDEA

Arlutz 2 - Irati STS 4
Fosforos 3 - Zuloak 2

EMAITZAK URIBE AUZOA

A TALDEA

No comment 0 - Altza porru 4
Lore Gazteak 2 - Elisabeth 4
Ola Tailerrak 4 - Lo+ X 4
Corinto taberna 3 - Kabiru 6
Semen Up 3 - Borrock'n roll 9

B TALDEA

Yomai 2 - Lokis 5
Ganbelas 2 - Bayer de Lenitz 1
Atxanta que te... 2 - Nuevo taberna 8
Berango sukaldeak 6 - Ke Oxtias! 1
Solano 7 mares 3 - Sorgol 5

D TALDEA

Los insociables 2 - Hirei 9
Top hits 1 - Stocker's 2
Estrella floja 6 - Mob.Arenaza 2
Lautherbrunnen 1 - Belo eta Txapi 2
Etxe mobiliario 0 - Ezkinako hontzak 1

E TALDEA

Borrock'n roll Prom. 1 - Auf dem koffer 9
Los Dalton 3 - Txeyenex 4
Fancy bois 1 - Excav. Lete 3
Jo ta Akabau 4 - Beti gazte 2
Kirten tropel 8 - Los garinbas 3

ASTEBURU HONETAN

ZALDIBAR

Larunbata 14

Zaldibar

11.00 Irati STS - Zuloak
12.00 Arlutz - Fosforos

Igandea 15

Zaldibar

11.00 Pepelus - Mikelos
12.00 Argi ibili - Trikiti

URIBE AUZOA

Larunbata 14

Iturripe A

09.00 Bodisca - Sorgol
10.00 Top hits - Belo eta Txapi
11.00 Ola tailerrak - Semen'up
12.00 Lautherbrunnen - Hirei
13.00 Los insociables - Mob. Arenaza
15.00 Borrock'n roll Prom. - Excav. Lete
16.00 Equus - Ezkinako hontzak
17.00 Atxanta que te... - Solano 7 mares
18.00 Trotabares - Borrock'n roll
19.00 Ganbelas - Ke oxtias!

Iturripe B

09.00 Los dimy - Los garinbas
10.00 Corinto taberna - Altza porru
11.00 No comment - Lo+X
12.00 Los Dalton - Beti gazte
13.00 Yomai - Nuevo taberna
15.00 Fancy bois - Kirten tropel
16.00 Lore gazteak - Kabiru
17.00 Estrella floja - Etxe mob.
18.00 Berango sukal. - Lokis
19.00 Jo ta akabau - Auf dem koffer

aurten
ere...



Kriston
martxa



ZULOAK

Pepelus 1 Argi Ibili 8

Lehen zatia 1-0 Pepelusen alde bukatu zen eta talde honetako atezainak, Iñaki Mendarozketak, izugarrizko geldiketak egin zituen. Baina 2. zatian Argi Ibilik golen makina abian jarri eta golak txurroak bezala, bata bestearen atzetik egiten hasi zen. Beraz, bi zati zeharo desberdinak ikusi genituen.

Mikelos 3 Trikiti 5

Norgehiagoko honek ez zuen kolorekin izan. Trikiti hasierako minutuetatik jaun eta jabe izan genuen, goitik behera nagusi izan zen eta 5 gol sartu zituen. Mikelsen ahaleginek ez zuten fruiturik ekarri eta neurketa galdu zuen.

Arlutz 2 Irati 4

Arlutzek neurketako lehen gola sartu bazuen ere, minutuak aurrera joan ahala aldatz gora jarri zitzaion neurketa. Iratik ez zuen amore eman eta errepasso ederra eman zion bigarren zatian. Kontuak kontu, merezimendu osoz lortutako garaipena.

Fosforos 3 Zuloak 2

Lehen zatian Fosforos taldea neurketako jaun eta jabe izan genuen. Dena dela, atsedena heldu zenean binako berdinketa erakusten zuen markagailuak. Bigarren zatian, Etxaberen ezbeharrak etorri zen eta Fosforosek 3. gola sartzeko aukera ez zuen alperrik galdu. Gola sartu eta neurketa irabazi.



IRATI

IRATI

TABERNA

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

MITARTE



Nekazalturismoa

Etxeko berezitasunak & Euskal janariak & menua edo karta & Mendiko irteerak & Urkulun pasioak & eta gaua iristen denean... logelak!



Areantza auzoa. Tfnoa: 79 17 51

GARAI

ARRASATE
PRESS

HARPIDETZAK

77 08 15

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

● Idoia Abarrategi Drogazaleei laguntzen

Idoia Abarrategi arrasatearra, Gasteizko Gizaki Helburu elkarteko Harre-ra zentroko zuzendaria dugu. Eta Monterronen Arabako Gizakia Helburu familien elkartekoek antolatu duten pintura erakusketa dela eta, Gizakia Helburu proiektua sakonkiago ezagutzeko Idoiarengana jo dugu.

- Zein da Gizakia Helbururen filosofia?

Autolaguntza filosofian oinarritzen gara, guztion laguntzarekin drogatik irteeta posible dela erakutsi nahi dugu. Pertsona bakoitzak, gizaki bezala ahalmen batzuk ditu eta gure lana ahalmen horiek indartzea litzateke, drogaren eraginez gaixo dagoena pertsona normal bihurtu dadin.

- Zer tratamendu erabiltzen duzue?

Droga gabeko programa librea gara. Gure tratamendua pertsonan oinarritzen da eta ez drogan. Programarekin drogazale bakoitzak bere egoeraren azterketa egin ondoren, bere kabuz, drogarik ezetz esateko gauza izatea lortu nahi dugu.

- Zenbat fase ditu tratamenduak?

Ohizko programak hiru fase ditu. Lehena harrera fasea, komunitatekoa bestea eta

azken fasea gizarteratzea litzateke. Hori ohizko fasea da, hau da, pertsona moduan berregituratzea behar duten pertsonentzat.

- Beti entzun izan dugu disziplina gogorra dagoela; horrenbesteko disziplina beharrezkoa da?

Programa hasi zenean, nahiko disziplina gogorra ematen zen; neurri batean disziplina hori ulergarria da, izan ere, pertsona desegituratua badago, kanpoko egitura zuzena behar du berriz ere galdutako egitura berreskuratzeke. Dena dela, duela hiru urtetik ez dugu hain disziplina gogorra erabiltzen, ez dela beharrezkoa uste dugulako.

- Zein da leintz bilarako zuen esperientzia?

Leintz bailara Gipuzkoako zatia izan arren, Donostiara joateko dauden zailtasunengatik, jendea gurgana etortzen da, eta une honetan programan ditugun pertsonetatik heren bat leintz bilarakoa da.

- Programa egiten dutenetatik zenbat sendatzen dira?

Prozesu dena bukatzen duten pertsonen artean sendatzen diren kopurua altua da, gure esperientziaren arabera, %70 gutxienez bai. Argi dago, beraz, sartzen diren bezala irten dezaketela drogatik.

- Osatu ondoren, gizarte-



ratzeko orduan zeintzuk dira aurkitzen dituzten arazo larriak?

Arazo larriena, ez bakarrik drogetatik irten direnentzat, guztiontzat, lana bilatzea da. Eta konkretuki drogatik irten dutenek izan dezaketen beste arazo larria VHI positibotik etor daiteke, Hiesari jendeak dion beldurratikat. Dena dela, pertsona batek drogarekin arazoak izan dituela baina orain osatua dagoela esan dezakeenean eta pertsona horrekin harremanak dituzenean benetan pertsona zoragarria dela konturatzen zara. Horixe da, gutxienez, gure esperientziak esaten diguna.

- Aurretik justiziarekin arazoren bat izan ezkeru zer gertatzen zaio?

Normalean zigor hori bigarren fasean komunitateko fasean, sartzen direnean bete-

tzeko aukera ematen zaie eta programa bukatu ostean arazoren bat edukitzen jarraitzen badute, indulto bidez konponetzen da. Baina argitu beharra dago kasu guztiak ez direla berdinak eta batzutan kartzelatik pasatu beharrean aurkitzen direla.

- Ze iritzi duzu metadonari buruz?

Guk, droga gabeko programa garenez, ez dugu ondo ikusten metadona, drogaren ordekoa, erabiltzea. Droga berez ez dela arazoa uste dugu, drogara pertsona bultzatu duen ingurunea baizik. Gure programa pertsonarengana doa zuzenean.

- Gurasoek erakusketa bat egin dute; familiartekoak oso inplikaturik egoten dira proiektuan?

Etxekoek nahiz senitartekoek, prozesu osoan, oso papel garrantzitsua betetzen dute, eta batez ere, lehen fasean nahitaezkoak dira. Drogazalearentzat lokarri eta babes lana egiten du etxekoak.

**● Osatzen direnen kopurua altua da.
Beraz, argi dago sendatzea posible dela.**

IGPen emaitza kalean

Maria Agirre

Dagoeneko kaleratu da Interbentzio Gune Partehartzaileetan parte hartu duten 303 lagunek, Maltzaga-Urbina ardatza- ren inguruan hartu zuten erabakia. Hori bai, IGPe- k harturiko erabakia ez da binkulantea izango, bai- na administrazioak kon- tutan izango duela adie- razi du. Baina azken txos- tenean, errepidearen gainean erabakitakoaz gain, beste emaitza adie- razgarri batzuk ere azal- tzen dira. Hona hemen guztien laburpena:

• Zer egin behar da Maltzaga-Urbina ardatzean?

Oraingo bidea berritu eta bide azkar berria egin: ...	% 42
Oraingo bidea berritu:	%39
Bide azkar berria egin:	% 15
Ezer ere ez:	% 2

• Zein finantzabide aukeratu zenuke?

Publikoa:	%37
Publikoa eta pribatua:	%36
Pribatua:	%8

• Peajea onartuko zenuke bidea finantzatzeko?

Bai:	%29
Ez:	%54

• Bilbo-Behobiako peajea luzatzea zer iruditzen zaizu?

Oso Ondo:	%6
Ondo:	%11
Erdizka:	%14
Txarto:	%22
Oso Txarto:	%42

• Gatzaga-Landako bizilagunen taldeak aurkez- turiko txostenaren inguruan:

Alde:	%59
Kontra:	%13

• Trenbidea oinezko eta txirrindularientzako berreskuratzea:

Oso Garrantzitsua:	%47
Garrantzitsua:	%28

• Garapen ekonomikorako garrantzitsua izango ote den :

Oso Garrantzitsua:	%25
Garrantzitsua:	%49

• Guztiek ingurugiroa eta ondare historiko-kulturala zaintzea eskatzen da. Batzuen ustez gainera, Oñatirekin lotura ez da egin behar Etxezarretatik pasatuta.

• Zer sentiarazten dizu politikak?

Entusiasmoa:	% 0,99
Konpromezua:	%9,90
Interesa:	%18,48
Axolagabekeria:	%11,22
Asperraldia:	% 4,95
Deskonfidantza:	%44,22
Haserrea:	%8,58

• Demokraziaren inguruan,

Ondo funtzionatzen du:	%1,65
Akatsekin baina ondo:	% 32,67
Gaizki funtzionatzen du:	%65

• Gizarteaz-en neutraltasuna.

Oso Ondo:	%54
Ondo:	%40

• Guztien ustez, IGPa- k bezalako mekanismoak baliogarriak dira horrelako arazoak konpontzeko.

Zenbat buru, hainbat aburu

IGPen emaitza ezagutzeaz batera, guneetan proiektua azaldu zuten taldeak euren iritzi eta balorazioak plazaratzen hasi dira. Horrelako gaietan sarritan gertatzen den moduan, IGPen ondorioei buruz ere irakurketa desberdinak egin dira. Konklusioak bakarrak izan arren, talde bakoitzak bere modura ulertzen ditu. Ondorengo lerroetan, kolore desberdineko ikuspuntuak jasotzen saiatu gara. Pentsatzekoa zenez, aurrerantzean ere Maltzaga-Urbina ardatzak emango du zeresanik.

ALDE BATEKOAK

Debasa, Eusko Jaurlaritzak eta Araba eta Gipuzkoako Diputazioek Maltzaga-Urbina egitasmoa kudeatzeko eratu zuten elkarteak, berehala kaleratu zuten hasierako balorazioa. Emaitzak publiko egin baino lehen Egin egunkariak ondorioak kaleratu zituelako haserre zegoela baina IGPen prozesuarekin gustora zegoela adierazi zuten. Konklusioen inguruan, Debasaren esa-

netan, Deba Bailarako azpiegiturak ahal den eta azkarren hobetu behar dira eta hori, egungo bidea hobetuz eta bide azkarra eginez egin behar da.

Josu Bergara, Garraio eta Herrilan sailburuak ere, bere irakurketa zein zen azaldu zuen. Bere ustez, finantziario mixtoa eta abiadura handiko autopista eraikitzea eskatu dute IGPeK. Finantziarioari dagokionez gainera, pribatua izan daitekeela esateak, peaje bidez izan daitekela esan nahi du Bergararen ustez.

Maltzaga Urbina autopistaren aldeko plataformakoen ustez, bide azkarraren alde daudenak, azken finean, bide azkarra den autopistaren alde daude. Beraz, azken hauek eta autopistaren alde daudenak baturik, IGPetan parte hartu duen gehiengo autopistaren alde dagoela zehaztu dute.

BESTALDEKOAK

Jabier Abalde, Deba Bailara Bizi Bizirik taldeko partaideak ARRASATE PRESSI azaldu dionez, "administrazioak ez ditu IGPaK sortu iritzi pu-

blikoak informazioa jaso dezan, aurrez harturiko erabakia legitimatzeko sortu ditu guneak". Abalderen ustez, "administrazioak ezin du esan guneak euren proiektuaren alde atera direnik, justu alderantzizkoa erabaki baitute. Egun dugun errepidea barrizteren alde daudenak eta Gatzaga-Landako bizilagunek aurkezturiko proiektuaren alde daudenak kontutan izanda, emaitza ez dela autopista egitearen aldekoa. Gainera, gehienak A8 luzatzearen aurka eta bide berria peaje gabe egitearen alde badaude, nondik aterako du administrazioak euren proiektua egiteko dirua?"

Prozesuan zuzenean parte hartu duen Gatzaga-Landako bizilagun taldeak gustora hartu du azken iritzia, euren proposamenak arrakasta izan baitu guneetan. Gatzaga-Landako lagunek, azken finean euren plantemenduak egun dugun errepidea bide azkar bihurtzeko barriztea eskatzen duela gogorarazi dute. Euren ustez gainera, guneek garbi

utzi dute autopista egitearen kontra daudela.

Nahiz eta ardatzaren inguruko proposamen zehatzik ez egin, Trenbide Zaharra berreskuratzearren alde azaldu zen taldeak ere, emaitza ezagutzean bere poztasuna azaldu eta euren proposamenak arrakasta izan zenez, asmoa kontutan izatea eskatu zuten

Balorazioen atalarekin bukatzeko, IGPtan proiektua azaldu zuten bailarako beste talde batzuk oraindik ez dutela baloraziorik egin aipatu behar da. Besteak beste, MC-Cren eta Maltzaga-Urbina plataformaren aldeko bailarako taldeer iritzia bota dugu faltan. Bestalde esan, datorren asteazkenean eta AED elkarteak antolatuta, IGPen emaitzen azterketa egiteko, Roman Sodupe, Xabier Zubizarreta, Aitor Orobengoa, Gizararteaz enpresako Luxio Ugarte, Aitor Iturriaga eta Gatzagako bizilagun bat hurbilduko direla. Hitzaldia Monterronen izango da, arratsaldeko 7etan.



Zozketaz aukeratutako 303 lagunek hartu zuten parte IGPetan.

T

**alde gehienak
pozik azaldu dira
IGPen
emaitzekin**

Zorionak, Arrasateko Saskibaloitzaileak

Txus Brizuelak, Arrasate saskibaloitzailearen entrenatzailea, taldea 1 mailako lehen fasean sailkatzea lortu du. Lorpen historikoa Arrasateko herriarentzat. Hau dela eta, Txusekin egon gara aurtengo denboraldiko garaia behar jakiteko.

- Zer esan nahi du zuretzat garaipenak?

Lau urte lanean aritu ondoren, lan horren emaitza dela uste dut. Urte asko daramatzagu, talde lehiakorra izateko lanean, eta talde lehiakorra eta orekatua osatzen duzunean, lan horren fruituak, etortzen dira, garaipenak.

- Partidua irabazita zegoela ikustean, burura etorri zitzaizun lehen gauza?

Momentu horretan ez zitzaidan burutik ezer pasatu. Baina partidua irabazi genduela konturatzean, pertsona askoren lan onaren fruitua zela pentsatu nuen.

- Ze balorazio egin dezakezu aurtengo denboraldiari buruz?

Aurtengo denboraldian 20 garaipen lortu ditugu eta 8 porrot. Beraz, oso denboraldi ona egin dugula esateko moduan nago. 2. mailako emaitza onenak lortu ditugun tal-

dea gara. Baina denboraldiko ezaugarri nagusia, beharbada, une erabakiorretan taldeak oso sendo egoten jakin duela izan da.

- Ligatxoa ekainaren 5tik 12ra jokatuko da; zeintzuk dira zure helburuak?

Nire helburua talde lehiakorra egitea da, hori lortzen dugun neurrian hor goian egoteko aukera franko izan-

go dugu. Orain igoera fasean sailkatzea lortu dugu, hementik aurrera, ligatxo horretan ahalik eta lan onena egitea nahi dugu. Lana ondo egiten badugu sailkatzeko bidean izango gara.

- Momentu honetan jokalaririk batzuk lesionatuta daude. Alde horretatik izan dezakezu arazorik?

Lesioak ez dira larriak,

golpeak besterik ez. Gainera, hilabete falta zaigunez, ordurako jokalaririk guztiak prest izatea espero dut. Dena dela, Galiziara joateko izan dezakegun arazoa beste leku batetik etor daiteke. Gure jokalaririk gehienak ikasleak dira eta ekainean azterketak izango dituzte, beraz, beharbada, batzuk ezin izango dira etorri baina espero dut aste honetan arazo guzti hauek lotuta uztea, joan ahal izango duten jokalariekin lanean hasteko.

- Zer da denboraldi honetan gertatu zaizun onena eta txarrena?

Onena orain bizitzen ari garen uneak, gainera, gero eta jarraitzaile gehiago dugu eta hori oso positiboki baloratu behar da. Txarrena, nire lagun eta familiarekin disfrutatzeke galtzen dudana denborazko librea.

- Zer eskatuko zenioke Arrasateko herriari?

Taldearen jarraipen sakinagoa egitea, bai sasoi onetan eta baita txarretan ere. Bestalde jarraitzaile fin izan direnei eskerrak eman nahi nizkieke eta jarraitzen ez duten pertsonen Musakolara joateko gonbitea egingo nieke. Eta guztiak Arrasateko goi mailako saskibaloitzaile duela go-goarazi.




Txus Brizuela, Arrasate Saskibaloitzailearen entrenatzailea.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrial**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

PENALTIAK

● **Arrasateko pilotariak Donostiako en kontra neurtu zituzten indarrak. Infantilen mailan irabazi egin zuten eta Jubenil eta nagusi mailetan, berriz, galdu. Partidu guztiak oso onak izan ziren eta nagusien neurketak esaterako bi ordu iraun zuen. Datorren astear- tean joaneko finalerdiak jokatu dituzte Iturri- pen arratsaldeko 7eta- tik aurrera.**

● **Arrasate-Kirolak II. krosa egingo da ekainaren 5ean. Krossa Esko- riatzatik Arrasatera izan- go da eta bertan senior, junior eta veterano mai- lako edonork har dezake parte. Izena emate- rakoan 500 Pta ordaindu beharko dira.**

Emakumeen futbito txapelketa

AED barruan dagoen Bihe- ko taldeak emakumeendako futbito txapelketa antolatu du. Txapelketa maiatzaren 28an jokatu da, arratsal- deko 2etatik 9a arte. Neur- ketak Iturripen jokatu dira, eta dagoeneko, Deba baila- rako 14 taldek eman dute izena. Taldeei errepaso bat emanez, Arrasate 9 tal- dek eman dute izena: Xapas- tak, Joixon Bertan, Biheko, Karpen Diem, Txakolin Txin Txas, Ezezagunak, Jo Ta Sue, Bixentak eta Txatxili- purdi taldeak dira. Bergara- tik hiru talde: Jarduneko Gazte Taldea, The Buldows eta Hamaikak eta Gutxi. El- getatik: Elgetakua taldea eta Antzuolatik Idolaz. 14 urte-



14 taldek hartuko dute parte. 20 urte bitarteko neskek osatzen dituzte taldeak. Gai- nera, futbitoaz gain, giroa alaitzeko Iturripen aldean tri-

kitilariak eta muralak ere egongo dira. Kirola egiteko eta ondo pasatzeko, prime- rako eguna.

EMAITZAK

Futbola

2. regionala (kopa): Mondra 0- Aloña 1
Emakumeak (kopa): Urretxu 1 - Mondra 1
Jub. Ohorezko liga: Mondra 3 - Amaika Bat 0
Kadeteak, 1. maila: Bergara 5- Mondra 0.
Kadeteak, 2. maila: Lazkao 0- Mondra 1.
Haurrak: Amaro 0- Mondra 4.
Hurrengoak:
2. Regionala (kopa): Eibartarrak - Mondra.
Zapatuan 3.30etan.
Emakumeak (kopa): UDA - Mondra. Do- mekan 11etan

Jub. Ohorezko liga: Ordizia - Mondra.
Zapatua 4.30etan
Kadeteak, 1. maila: Arrasate - Eibar.
Zapatuan 12.30etan

Saskibaloia

2. maila igoera fasea: Getxo 80- Arra- sate 85

Eskubaloia:

Igoera fasea: Arrasate Kirolak 20- Caja bilbao 21.
Hurrengoak:
Igoera fasea: Arrasate Kirolak - Club balonmano Vitoria. 6.15etan Iturripen.

Pilota

Herri artekoa Arrasate 1 - Donostia. 2
Infantilak (18-11), Jubenilak (14-22), Nagu- siak (20-22)
Hurrengoak:
Herri artekoa Donostia - Arrasate. 11etan Donostian.
Finalerdiak: 7etan Iturripen.
Infantilak: Arrasate - Elgeta.
Jubenilak: Arrasate - Soraluze.
Nagusiak: Arrasate - Elgeta.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

PEUGEOT - TALBOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE


Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

ZER GATIK SAN VIATORRERA?



IZASKUN URIBESALGO
IRAKASLEA

San Viator, heziketa fisikoaren eta kirolaren alde apustu egin duen ikastola delako.



JUAN TELLERIA
IKASLE

Nire bi anaiek San Viatorren ikasi zuten, eta oso gustora gainera. Bestalde, gure ordutegia aproposa da, 8etatik ordu bi terdietaraino, horrela arratsalde nire erara planifika dezaket.



MERTXE HERRAN
AMA

Guraso batzuei galdetu nien eta informazio desberdina jaso ondoren, San Viatorreke eskaintzen duen hezkuntza gustokoa nuela konturatu nintzen. Era berean, Arrasaten bertan dago.



BEGOÑA MARKAIDE
AMA

Hezkuntza mailan urte asko darabilako, tradizio handikoa delako eta ondo gertatutako hezkuntza eskaintzen duelako. Baita eskaintza zabala ere, 6 urtetik 20 urterarte.




MAIDER POMBAR
IKASLEA

Gurasoeak leku aproposa izango zela uste zutelako.



IGONE AJURIA
IRAKASLEA

Irakasleok lan taldea osatzen dugu eta gure lana, gizarteak eskatzen duenera moldatzen dugulako.



EUGENIO ETXEBARRIA
AITA

Kristau eskola delako eta Arrasaten prestigioa duelako. Gainera orain, guzok parte hartzeko aukera handiagoa daukagu.



LANDER LORENZO
IKASLEA

Nire guraso eta osabek hemen ikasi zutelako eta jakina, ederki pasatzen dudalako ere bai.

LABURRAK

Egun Mundiala'94

Arrasateko Trikitixa Eskolak, sekulako jai prestatu du maiatzaren 14rako, larunbaterako. Dударik gabe, egun mundiala izango da. Goizeko 11.30etan Zaldibarren elkartuko dira trikitilari guztiak eta Danok Bat elkartearen hamarretako egingo dute; aurren, Arbizu eta Gasteizko trikitilariak gonbidatuko dituzte. 12.30etan, talde ezberdinetan banatuz, herrian zehar kalejira alai burutuko da eta 2.00ak aldera, goizean zehar galdutako indarrak berreskuratzeko, Garagarzako auzo-etxean bazkaria egingo da. Sabela ondo bete ondoren, 3.30etan jolasean egiteko eta musika entzuteko aukera izango da, baita dantzatzeko ere. Haur, gazte, guraso, aiton-amon... guztiok zaudete gonbidatuta!

"Gizakia-Helburu"ren alde

Arabako "Gizakia-Helburu"ren alde, arte erakusketa izango da ikusgai maiatzaren 10etik 30era bitartean Monterronen. Erakusketa honen helburu nagusia, tratamenduan dagoen pertsona, drogaren menpe egotetik norbere autonomiara pasatzea da eta dirua biltzeko egiten den lehen arte erakusketa da.

"Txirta"

Arrasateko triangelu umoretsua

Iñigo Txintxurretak, Iñaki Unamunok eta Jose Ramon Etxebarriak, "Txirta" antzerki talde komikia sortu dute. Lehengo biak esperientziadunak dira, azkena berriz ez. Bromak alde batera utzi eta serioki hitz egiteko bildu ditugu.



— Nondik sortu da "Txirta"?

— **Iñaki:** Ideia Iñigori eta niri bururatu zitzaigun. Elkarrekin lanean ibiliak ginen eta betidanik izan dugu antzerki mobida hau gustoko. Bestalde, azken Play-Back jaialdian izan genuen arrakastak, taldea gauzatzera eraman gintuen. J.R. ez da inoiz antzerki lanetan aritu baina gustora dabil eta oso ona da.

— Orainarteko antzezlanak, zuek produzitutakoak izan dira?

— **Iñigo:** Egia esan, nahiz eta jende askok kontrakoa pentsatzen duen, bai. "Tricycle" taldearen antzezlan batzuk hartu izan ditugu eredu moduan baina beti gehitu izan dizkiegure aportazioak. Gai honi buruz, luze hitzegin genezake, jendeak "Tricle" imitatzen dugula uste baitu. Egia esan, gogo handiz hartu dugu taldearena eta ez gaude "Tri-

cicle" imitatzen dugula entzuteko prest: Ez da hain sinplea.

— Zein laguntza mota jaso duzue taldea sortzeko?

— **Iñaki:** Uf! Lagundu diguten talde eta pertsonen izenak esaten hasiko bagina, ez genuke sekula amaituko. Atea jo dugun etxe bakoitzean, laguntza aurkitu dugu; oso harrিতa gaude, gutziz "aluzinatuta".

— Noiz egingo duzue Arrasaten estreinu ofiziala?

— **Iñaki:** Ekainaren 4an

izango da. Suzko froga izango da hori, hor izango dugun arrakastaren arabera, benetan balio dugun edo ez jakingo baitugu.

— Hain aditua al da Arrasateko publikoa?

— **Iñigo eta Iñaki:** Inongoa baino exigenteagoa, benetan. Izugarria da, txaloen orduan igertzen da hori. Arrasatearrek, numeroa gustatu ez bazaie, aurpegira esaten dizute; badakite gauzak baloratzen. Arrasateko harrieraren arabera jakingo dugu balio dugun edo ez.

— Antzerkitik bizi izan daiteke?

— **Iñigo:** Gu behintzat, nahi izanez gero, bai.

— **Iñaki:** Karra Elejaldek zera esan zigun behin: "Izpiritua aberastu nahi baduzu, antzerkia egin; poltsikoak bete nahi badituzue, hartu kamara bat eta zinea egin ezazue".

.....
 "Numeroa gustatu ez bazaie, aurpegira esaten dizute arrasatearrek"

beatriz
 oinetakoak eta poltsak
 Erdiko kale, 11
 Tfnoa: 79 14 33
 ARRASATE

Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!
RUTH GATZAGA
 Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
 ARRASATE

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta


.....
URRATS
 AHOLKULARITZA
 GARIBAL, 3
 Tfnoa: 79 87 74
 ARRASATE

TARDE de SABADO

EGUNA: MAIATZAKI — ORDUA: GAUEKO 10:30ETAN — LEKUA: AMAKORRIAN — KARRERA: 500 PTA. — GAZTE TXARTEI ARDURAN 500 PTA.

ARRASATEKO
UDALTZEA

GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Solo buscaban un lugar digno en que sentarse ante el televisor y cayeron en el delito.

TRAPU SAHARRA

San Isidroak: "Independentisten" jaia

Benetan asteburu animatua aurrean daukagun hau, San Isidroak ospatzen baitituzte independentzia eskatzen duten bizilagun arrasatearrek: Musakolatarrek.

OSTIRALA, "AL SAKO" EGUNA

Goiz osoan zehar, haurrentzako ekintzak eta jolasak izango dira nagusi Musakolako ikastolan eta bolatokian. Arratsaldean, berriz, auzoko jubilatuek hartuko dute protagonismoa, 4etan Mus Txapelketa eta 4.30etan Bolo Txapelketa izango baitute. Zazpiak aldera, Ikurriña igoko da eta buruhandi eta dultzaineroen irteerarekin batera, goxokiak botako dira alkatetzatik. 7.30etan, auzoko jubilatuek jai-afaria izango dute Kataide jate-txean. Eguzkia ezkutatu eta izarrak ateratzen direnean, Drindots taldeak alaiturik, dantzaldia izango da.

ZAPATUA, SAN ISIDRO BEZPERA

Goiz partean, kirolak izango dira nagusi: V. Mountain Bike Zeharbidea, pelota partidua eta Karate erakustaldia.

Eguerdiko 12.30etan, gure geografiako txoko guztietatik etorritako motozaleak hasiko dira heltzen, ordu honetan emango bait zaio hasiera Arrasate Motozale



Joan den urteko independentziaren aldeko manifestazioa.

Elkartek antolatutako motor kontzentrazioari. Beste urte batzutan ikusi ahal izan dugun moduan, benetan espektakulu bikaina izango da aurtengoa ere. Eguerdiko ordubata terdian, urrezko astakiloak emango zaizkie auzoan motibo bat edo bestegatik nabarmendu diren lagunei. Independentzia kontuak direla eta, ordu bietan, esertze jendetsua egingo da etorbidean. Gualdera, Arkaitz taldearen soinupean dantzaldia izango da eta goizaldera, ordu bietan, gizonzkoen "strip-tease" a ikusgai diskotekako plataforman.

IGANDEA, SAN ISIDRO EGUNA

Goizeko 10ak aldera hasiko dira erraldoiak eta dultzaineroak "bixamonoak" esnatzen. 11.30etan, Meza

Nagusia izango da San Isidro kaperan Bixente Goikoetxea abesbatzarekin. 12etan Gimnasia Erritmiko erakustaldia izango da kiroldegian. Arratsaldeko egitaraua, prentsaurreko batek zabalduko du: prentsaurrekoa burutuko den lekua zein izango den ez dute argitu nahi izan Arrasateko independentistek. 6ak aldera, herri-kirolak izango dira ikusgai eta 7.30etan, Rock Jaialdia aire zabaleko kontzertu aretoan. San Isidroei amaiera emateko, gaueko 10.30etan azken kalejiara burutuko da eta 12etan, suzko erruberek, agurrak eta "Azkentrakak", 94ko San Isidroak agurtuko dituzte.

Asteburu honetarako asmo berezirik ez bazenuen, badakizu nora jo: Musakolan, San Isidroak zai dituzu.

LABURRAK

Ipuin Lehiaketa

Arrasateko Hezkuntza eta Emakumearen aldeko Udal Sailak, Arrasateko 6., 7. eta 8. mailako ikasleentzat ipuin lehiaketa antolatu dute. Ipuinaren gaia, "Ikusten al duzu gaurko gizartean neska-mutikoen arteko desberdintasunik?" izan beharko da eta banaka nahiz taldeka aurkeztu ahal izango dira lanak. 3-5 folioko luzeez beharko dute ipuinek eta maiatzaren 27an itxiko da lanak aurkezteko epea. Hasi zure buruari bueltak ematen eta anima zaitez, zure irakasleek lagunduko dizute eta!

"Kanpokaldeko Lora Apainketa" lehiaketa

Bigarren urtez, Kanpokaldeko Lora Apainketa lehiaketa antolatu du "Ibai-Artek". Lehiaketa honetan kontutan izango diren leiho edo miradoreak, erdikaldeko etxebizitzanak izango dira soilik eta ez dago izena eman beharrik. Maiatzaren 4tik Uztailaren 6ra bitartean apaindutako leihoak izango dira saria lortzeko aukera izango dutenak eta azken egun horretan emango da irabazlearen izena ezagutzera. Sariak, Ibai-Arteko dendetako generoa izango dira. Loreak gustoko badituzu, hasi lanean!

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 08 15

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

TXOKO TABERNA

*Gure berezitasunak pintxo
eta mokau gozoak*

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE



Goiru, 1923ko maiatzak 18

Z

daberria eta maiatza, ezkontza sasoi izaten da orain,

baina antzina ere hala izaten zen nonbait. Erretratuko hauek ere maiatzean ezkondu ziren, 1923ko maiatzaren 18an hain justu ere. **Maria Guridi** eta **Felipe Leibar** dira, ezkontzako gonbidatu guztiekin neskaren jaiotxearen aurrekaldean erretratuan atera zituztenak. Ezkondu Arantzazun egin ziren, eta gero biajean Madrilera joan ziren. Ezkonberritan Gesalibarko Elezgarain bizi izan ziren eta gero berriz Loretokin.

Sei seme-alaba izan zituzten: Sole, Juanito, Feliziano, Merte, Joxe Kruz eta Mari Karmen Leibar Guridi. Felipek emakumeen ospitalean egin zuen jardineru, bizi guztian, jubilatuta eta gero ere bai, 80 urte bete arte. Maria, berriz, komadrona izan zen, Gesalibar eta Garagartzako umea gehienak jaiotzen ikusi zituen, horretarako liburu batean jasota duenez.


Goian zutik, ezkerretik hasita, **Dolores Leibar** Baz-

targain baserrikoa, **Patrizia Guridi** Goirukoa, **Felisa Leibar** Aduanakoa eta **Gaspar Ugarte** Goirukoa.

Behean, **Julio Leibar** (urte askoan monjen txoferra izandakoa), **Jose** edo **Aita Nikolas Iturbe**, Ikutixoko semea, Arantzazun fraile zegoena. Andregaiaren lehen-gusua zen, eta berak ezkondu zituen. Alboan **Maria** eta **Felipe**. Ondoan, **Ines Loidi** Errotetxekoa eta **Mari Kruz Ugarte** Goirukoa.

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE



BERRITU ZURE ERRETRATUAK



- Apurtua konpondu
- Bi erretraturekin bat egin
- Jende multzo baten erretratutik pertsona batena atera

Ez ahaztu!

57 Pta.

Oraindik LIDER tamainuko erretratuak (13x18) erretratu normalen prezioan...

· AIPUA ·

“Diruarenganako desioa dirua bera beste bazten da”

JUVENAL

· JEROGLIFIKOA ·

500

EBA

teak

Telebistan zer duzu gustokoena?

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6
7				8	9
10			11		
12					13
14			15	16	
17		18		19	
20					

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Garagartz auzoko harrobia. 7. Adio. 8. Pinu. 10. Liskar, gatazka. 12. Gehiegikeria. 13. Idi hitz elkartuetan. 14. Bat eta bat. 15. Zurgin. 17. Udaberri eta udazkenaren artean. 19. (Ald.) Zilbor. 20. Debekua buruzeko gogoia.

Bertikalak 1. Zerraldo, hilkutxa. 2. Ofizio, lanbide. 3. Gorputzaren goiko atala. 4. Apalak dituen armairu. 5. Abare talde. 6. Garbi. 7. Zerbaiti buruzko ustea izan. 11. Iseka, trufa. 16. (Ald.) Ondorio baten kausa. 18. (Ald.) Nafarroako ibilgailuetan.

· HOROSKOPOA ·

Aries Ai, txotxolo!...Ez al dakizu alperrik dela hura joan eta gero presa egitea?

Taurus Hori da zortea duzuna, hori! Gizen-tzen ez duten bonboi batzuk kaleratu dituzte.

Gemini Lagun falta somatzen baduzu, aukera polita duzu igande honetan adiskideak egiteko.

Cancer Hitzegiten duzunagatik, hobe mutu jaio izan bazina, motel!

Leo Zure izakerak edozein pertsonaren pazien-tziarekin bukatzen du.

Virgo “Eighteen” kolonia ona litzateke soinean duzun kiratsa aldatzeko.

Libra Zure hitzen goxotasunak bat baino gehi-go liluratsen du.

Scorpio Ez dakit tontoa zaren, baina tontoen lehiaketa batera joanez gero, lehenengo saria eskuratuko zenuke.

Sagitaris Zurea bai gaisotasun larria! Horrelako puzkarrak botatzeko, barrua ustela izan behar duzu.

Capricorn Dena eskuetara emanda bezala etorriko zaizu. Aprobetxatu!

Aquarius Ez zara enteratu? Erretzeari uzteko pastilak atera dituzte!

Piscis Azkenean lortu duzu. Ea zenbat denbora irauten dizun.

HITZALDI – MAHAINGURUA

Gaia: MAL TZAGA-URBINA ARDA TZA

IGP-NIPetako emaitzen azterketa

- Gipuzkoako Foru Aldunditik: ROMAN SODUPE
- Herri Batasunatik: XABIER ZUBIZARRET A
- Eusko Alkartasuna -Euskal Ezkerratik: AITOR OROBENGOA
- “Gizarteaz” enpresatik: LUXIO UGAR TE
- IGP-NIPetako parte hartzailea: AITOR ITURRIAGA
- Gatzaga-Landa Komitetik: ORDEZKARI BA T
- Moderatzailea: JOSE RAMON ELORZA

Maiatzaren 18an - Arratsaldeko 7etan
- Monterron jauregiko hitzaldi aretoan -

Antolatzailea:  **AED ELKARTEA**
arrasate-gipuzkoa

• ARANTZA BARRUTIAREN GOMENDIOA •




Ikasturtean zehar lanarekin erlazionatu-tako irakurgaiak izaten ditugu eskuartean. Oporretarako, urtean zehar ikarkurtzen ez dena gorde ohi du Arantzak, eta horrelako liburu bat gomendatu nahi liguke: "Vendidas", Zana Muhsen eta Andrew Crofts-en nobela. "Irakurri nuenean asko gustatu zitzaidan. Irakurterraza da eta gai interesgarria du"; erlijoaren eraginez eta senarraren autoritatea dela eta alabak saldu beharrean aurkitzen den ama baten historia kontatzen du. "Gizonezkoak emakumezkoaren gainean duen boterea adierazten du, eta gu gaizki baldin bagaude, herrialde arabiarretako emakumeak txarrago daudela".

• PROGRAMAZIOA •



- 15 Igandea**
20.00etan
Astebete (errep.)
20.30etan
Mondragol
- 16 Astelehena**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
"Kukaraxta Motel" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
"Aita Jauna I"
- 17 Asteartea**
13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport (errep.)
14.05etan
"Aita Jauna I" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan
22.00etan
"Aita Jauna II"
- 18 Asteazkena**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
ATBketan (errep.)
14.05etan
"Aita Jauna II" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Pareak Jokuan. Gaia: Antimilitarismoa
22.00etan
Dokumentala: "Satelitea; nola sortzen da gizakia?"
- 19 Osteguna**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Pareak Jokuan (errep.)
14.05etan
Dokumentala (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Errandonea pilotaria.
22.00etan
Euskal filmea: "Ke arteko egunak"
- 20 Ostirala**
13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Bakarka (errep.)
14.05etan
"Ke arteko egunak" (errep.)
19.15etan
Kukaraxta Motel
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Haurren filmea: "Arturo Erregea"

• KOMIKIA •



Ainara Alonso

HAURTOKO
Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

VE ECUADOR
Bidaiak
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

**Monte
taberna**
Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

• SOLUZIOAK •

JEROGIFIKOA
Debateak
Ezti, 11. Burla, 16. Zio, 18. Na.
3. Buru, 4. Arasa, 5. Eii, 6. Aratz, 9.
Bertikalk 1. Katibut, 2. Ogitibe.
Tentazio.
14. Bi, 15. Arotz, 17. Uda, 19. Zii, 20.
1er, 10. Tirabira, 12. Abusu, 13. It.
Hortzontalak 1. Kobate, 7. Agur, 8.
GURUTZGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Pisua salgai.** 4 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 2 terraza, garajea eta berogailua. Tfnoa: 77 07 91.
- **Erguinen nesken pisu batean** oso gela merkea alokatzen da. Tfnoa: 77 06 25.
- **Torreveijan apartamendua** alokatzen da, bi logela eta igerilekuarekin. Maiatza, ekaina edo uztailerako. Tfnoa: 79 64 50.
- **Hiru pertsona behar dira** pisu eder bat osatzeko. Banakako logelen aukera. Tfnoa: 65 52 98.
- **Garajea salgai** daukat. Iturriotz kalean, 27 znbk.an. Tfnoa: 79 94 40.
- **Garajea salgai Roneon.** Tfnoa: 79 90 50.
- **Arrasaten etxebizitza alokatuko** nieke ikasleei. Hiru logela, egongela, komuna eta sukaldea ditu. Prezio interesgarria. Interesatuak dei egin 79 61 95 tfnora.
- **Ikasle edo langileak** hartuko nituzke erdialdeko etxe berri batean. Tfnoa: 79 80 44. Marian.
- **Pisu bat nahi nuke alokatu.** Ahal bada Erguin auzoan. Tfnoa: 79 65 70.
- **Apartamendua alokatzen da Torreveijan.** Ondartzatik hurbil. Prezio interesgarria. Tfnoa: 78 14 72.
- **134 m²tako etxebizitza salgai.** 7 logela, eguzkitzua, erabat hornitua, 2 komun, berogailua eta ur beroa. Atondu berria. Bista zoragarria. Tfnoa: 77 10 27.
- **Merkatala lokalak alokatu** (traspasurik gabe). 35m². Tfnoa: 79 84 37. Goizeko 9etatik 12etara.

• **Garajea alokatzen da.** Roneo aldean. Tfnoa: 79 36 09.

• **Peniscolan 6 pertsonentzako bungalow** alokatzen da Ekaina, Uztaila eta Irailean. Hondartzan bertan dago. Tfnoa: 27 01 37. Itziar.

Lana

- **30 urteko neska** pertsona nagusiak, gaisoak edo elbarrituak zaintzeko prest. Euskara ulertzen dut. Klinikako laguntzaile ikasketak egin ditut. Tfnoa: 71 40 95. M^a Eugenia.
- **Enpresa lizentziatuak** administrari gisa lan egingo luke edo kontabilitate-matematika edo finantza-matematikazko klaseak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.
- **DBase IV programatzen** dakien pertsona baten laguntza behar dut. Dei egin 79 99 82 tfnora. Miren.
- **Uztaila edo abuztuan** lan egiteko 3 neska prest. Tfnoa: 79 31 48.
- **Taberna salgai.** Guztiz hornitua. Estrenatu gabe. Tfnoa: 79 74 80.
- **Ingeleseko klaseak** emango dizkidan irakaslea aurkitu nahi nuke. 1. REM ikasten ari naiz. Tfnoa: 79 70 73.
- **Emakumea** eskaintzen da, egunean bi orduz lana egiteko. Tfnoa: 79 59 72.
- **OHoko klaseak** emateko prest. Dei egin 79 33 39. 9etatik 11etara. Gaez.
- **Neska euskalduna** eta esperientziaduna eskaintzen da garbiketarako egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 62 85.

Salerosketak

- **Eskiatzeko buzoa.** 42-44 tailakoa. Berria. Diseinu modernokoa. Prezioa: 10.000 Pta Tfnoa: 79 64 50.
- **YAMAHA FZR-600** motorra salgai. Oso egoera onean. Tfnoa: 79 91 59. Xabier. Gaez.
- **Opel kadett GSI**ko asientoak salgai egoera onean. 50.000 Pta. Tfnoa: 79 29 93. 3,30etatik 19.00etara. Iban.
- **Fagor berogailua** (gas naturalarentzako) berri-berria salgai. Tfnoa: 79 59 72.
- **R-19 Driver salgai.** SS-AS. Tfnoa: 79 99 17.
- **FLORET R580-10 teknigrafoa** eta marrazketako mahaia salgai. Oso egoera onean. Prezioa: 90.000 Pta. Tfnoa: 77 10 15.

Denetarik

- **Borda edo lur zati bat** bilatzen ari naiz. Leintz bailara eta inguruetan. Tfnoa: 71 47 10.
- **Akordeoirako partiturak** dituen koadernoak galdu zait. Aurkitzen baduzu, dei egin 79 66 56 tfnora.
- **Agurtzane eta Andoni:** Oraindik denboraz zaudete atzera egiteko. Bestela, berriaz, ondo pasatu eta ZORIONAK! ARKOKO lagunok.

Aste Gazte

Euskadiko gazteak lankidetzan:

• Hegoamerika, Afrika eta Asiako hainbat herrialdetan kooperazio egitasmotan parte hartzeko programa. Ikasketak eta kooperazio lanetako esperientzia baloratuko dira. Egonaldiak 1-3 hilabete bitartekoak izan daitezke. Epea: maiatzak 22.

Egonaldiak familia euskaldunetan:

• HABEko 6. maila gaindituta duten 18-35 urte bitartekoei zuzendutako programa. Egonaldiak hilabetekoak dira, uztailetik iraileira bitartean. Kostua: 20.000 PTA. Izena emateko

epea: maiatzak 16.

Auzolandegiak:

• Euskadiko auzolandegietan parte hartzeko interesa baduzu, oraindik plaza batzuk libre daude. Hori bai, inskripzioa lehenbait lehen egin behar duzu.
• Atzerriko auzolandegietan parte hartzea nahiago baduzu, berriaz, Catalunyako SCI elkar-tearen bidez tramitatu dezakezu inskripzioa. Elkarte honek auzolandegi eskaintza zabala kontrolatzen du.

Bekak:

• Basauriko udalak "Juan de Otxalora" bekaren deialdia egin

du, eskultura, pintura eta grabatu arloetan. Dirulaguntza: 500.000 PTA. Epea: maiatzak 20.

Euskal Udalekuak:

• Abaigar, Bernedo, Goñi eta Urdirozen. OHOKO 3. mailatik 8. mailara bitarteko ikasleei zuzenduak. Uztaila eta abuztuan.

Lehiaketak:

• XV. Literatur eta Argazki lehiaketa. Jarraik antolatuta. Deba Garaian bizi edo ikasten dutenei zuzendua. Epea: maiatzak 27.
• Argazki lehiaketa, 14-25 urte bitartekoei zuzendua. Donostiako Udalak antolatuta. Epea: maiatzak 20.

"Zeren eta garrek, suak, ene gaztararoko aldare jausiak berpiztu egin baitituzte; belarretan, iturriaren ondoan."

SOPHUS CLAUSEEN.
"KULROG".



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65



THOMSON TELEBISTA ZINEMA FORMATOAN.




**O R A I N
A R T E
H O R R E L A
I K U S T E N
Z E N U E N**

THOMPSON TELEBISTAK BEGIAK ZABALDUKO DIZKIZU



ITURRIOTZ, 15
ARRASATE
☎ 79 15 16

Jose Aranzabal



IRAGUNA

Essayez nos Nouvelles 6 Cylindres
C'est vous qui nous en direz les qualités.

*Exposition
Essais
Champs-Élysées
Paris*

Renault

Billancourt (Seine)

**Motorearen
aste
handia**



**Aintzinako autoer
ERAKUSKETA**



LAGUNA

ETORKITZUNA